



zero
Zabor
ESKOLAK





Zero Zabor Eskolak

Zer da?

Gipuzkoako gizartearen hainbat alorrek hondakinen aferari buruzko kontzientziazio, prebentzio eta formakuntzaren beharra adierazi dute. Eskaera horri erantzun asmoz, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Aranzadi Zientzia Elkarteak, Ikastolen Elkarteak eta Kristau Eskolak Zero Zabor Eskolak hitzarmena sinatu zuten 2012ko urrian Gipuzkoako ikastetxeetan Lehen nahiz Bigarren Hezkuntzan Zero Zabor filosofia lantzeko.

Nola?

Metodologia aktiboak eta parte-hartzaileak erabiltzen dira, ikaslearengan foka-tuak eta konpetentzietan oinarrituak, elkartasuna, lankidetzeta, pentsamendu kritikoa, ekintzailetasuna eta konpromisoa landuz.

Zer egin dugu?

2012-2013 Ikasturtean zehar, Aranzadik Lehen Hezkuntzarako tailerrak sortu eta pilotu eran jarri ditu. Gipuzkoako 7 ikastetxetako LHko 5. eta 6. mailako 28 geletan, 643 ikaslek hartu zuten parte.

2013-2014 ikasturtean, Gipuzkoako 24 eskoletako 68 geletan izan ginen; guztira 1549 ikaslek parte hartu zuten tailerretan.

Konpetentziak

Tailerretan, Euskal Curriculumean proposatzen den “Gizarte errealitatea hobetze-ko eta natura defendatzeko proiektuetan konprometitzea, norberaren edo/eta kolektiboen interesetan oinarritutako hausnarketen eta iritzi kritikoaren ondorioz” konpetentzia lantzen da.

2014-2015 ikasturterako eskaintza

LH

Gipuzkoako ikastetxe guztiei Lehen Hezkuntzako hirugarren ziklorako **lau tailer** desberdin eskaintzen zaizkie, dohainik guztiak.

- ▶ **1 · Zero Zabor Hamaiketako** (1:30´)
- ▶ **2 · Ezagueren aldarnatzea** (1:00)
- ▶ **3 · Hor-Konpost!** (1:30´)
- ▶ **4 · Eskolako langileentzako konpost tailerra** (1:00´)

Ikastetxe bakoitzak 4 tailerrak burutu ditzake, edo horietatik nahi duena aukeratu, bere beharren arabera.

Kontaktua

· **Rai Mendiburu** (Aranzadi Zientzia Elkartea)
· rmendiburu@aranzadi-zientziak.org
· 652.757.003 / 943.46.61.42 (Aranzadi)





ZERO ZABOR HAMAIKETAKOA tailerra

Deskribapena

Tailer honetan zenbat hondakin sortzen dugun eta horiekin zer gertatzen den aztertzen da. Ikasleek euren egunerokotasunean sortzen dituzten hondakinak murrizteko 4 teknika landuko dituzte: Beheratu, Berrerabili, Birziklatu eta Birpentsatu. Gelakideek hamaiketakoan sortutako zabor kopurua eta mota aztertuko dute. Posible ote da Zero Zabor hamaiketakoa lortzea?

Ikaste emaitzak

- Ikasleek beren bizi-eremuko ingurumen-arazoen berri izatea, sortzen ditugun hondakinak gizarte arazoak direla ulertzea eta arazo hori guztion artean konpondu behar dugula kontzientzia hartzea.
- Taldean lan eginez eta klase-kideei haien ondorioak komunikatuz hondakinen gutxiagotzeak, berrerabiltzeak eta birziklatzeak duen garrantzia, jabetzea eta soluzio propioak sortzea.

Jarduerak

- Zer egin dezaket nik? 4 B-ak (Beheratu, Berrerabili, Birziklatu eta Birpentsatu).
- Nora doaz nire hondakinak? PPT-a.
- “Hondakinak murrizten” jolasa.
- Hamaiketakoan sortutako hondakinen auditoria (analisi kritikoa).
- Ingurumen konpromisoaren sinadura eta Boc ´n Roll-aren banaketa.





HOR-KONPOST! tailerra

Deskribapena

Tailer honetan konposta zer den, zergatik eta nola egiten den azaltzen da, eta nahi izanez gero, eskolan bertan konpost proiektu bat martxan jartzeko laguntza guztia eskaintzen da ere.

Ikaste emaitzak

- Hondakin organikoak konposta bihurtzeko prozesua eta onurak ezagutzea.
- Ikastetxean hondakin organikoak jasotzeko sistema bat martxan jartzen laguntzea eta eskolako konpost- ontziak behar dituen zaintza lanak ezagutzea.

Jarduerak

- Zer da konpostagarria?
- Eskolako konposta. PPT-a.
- Konpostaren jolasa.
- Konposta egiten gure gelan.
- Eskolako konpost ontziari bisita didaktikoa (eskolan egon ezker).





EZAGUEREN ALDAMIATZEA tailerra

Deskribapena

Harturiko ezagutzak berrikusi eta beren inpaktua neurtuko da. Hamaiketakoan sorturiko hondakinen auditoria berria egin eta aurrekoarekin alderatu egiten da. Zenbateko murrizketa izan da?

Ikaste emaitzak

- 4 B-ak aplikatuz (eta konposta egiten) hondakinak zenbateraino murriztu daitezkeen jabetzea.
- Zero Zabor filosofia zer den ezagutzea. Munduko Zero Zabor ekimenak ikustea.

Jarduerak

- Hamaiketakoan sortutako hondakinen auditoria berria.
- Murriztutako hondakinen kalkuluak egin.
- Ingelesezko abesti bat jarraitu (3R-s, Jack Johnson).
- Web orri baten bistaratzea (www.zerowasteeurope.org).

Tailerretan jasotako erantzuna

Irakasleek

Ikasleak oso gustura egon dira.
(Jesuitinas, Donostia)

Ez legoke gaizki ordu gehiagotan etortzea.
(Salbatore Mitxelena Ikastola, Zarautz)

Familiei ere eman beharko genieke horrelako tailerrak.
(Salbatore Mitxelena Ikastola, Zarautz)

Tailer oso interesgarria.
(La Salle Berrozpe, Andoain)

Ikasleek

Arreta jarri dut asko interesatu zait eta.
(LH5, ElkarHezi, Oñati)

Espero dut gehiagotan etortzea.
(LH5, La Salle Berrozpe, Andoain)

Oso gustura egon naiz tailerretan.
(LH5, Jesuitinas, Donostia)

**Hau ikasi dut:
Entzun; Parte hartu; Errespetatu.**
(LH6, Uzturpe Ikastola, Ibarra)

Oso ona izan da tailerra.
(LH6, San José Floreaga, Azkoitia)



Eskolako langileentzako **KONPOST** tailerra

Deskribapena

Irakasleei nahiz zerbitzuetako langileei (sukaldari, atezain, ...) zuzenduriko konpost tailerra da. Ordutegia, eskola eta Aranzadiren artean adostutakoa izango da.

Ikaste emaitzak

- Hondakin organikoak konposta bihurtzeko prozesua eta onurak ezagutzea.
- Ikastetxean hondakin organikoak jasotzeko sistema bat martxan jartzen laguntzea eta eskolako konpost- ontziak behar dituen zaintza lanak ezagutzea.

Jarduerak

- Zer da konpostagarria?
- Eskolako konposta. PPT-a
- Konpostaren jolasa.
- Eskolako konpost ontziari bisita didaktikoa (eskolan egon ezker).

